

“Argi daukat zer jokotan nabilen”

Tiko | Roberto Martinez

Zirkurik ez eskura, eta Lezamara joan nintzen.
Hantxe zegoen lehoi bat inguruko tximinooi so.
Eta zorologikoetan dena libre denez...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Futbolariak *bibidore* hutsak zarete!

Ikusten duzunean errendimendu bat eman behar duzula, asko espero dela zutaz, zeure burua prestatzeko esfortzu estra bat egin behar duzu, eta hori azkenean energia galtzea da.

Azkar nekatzen zarete gero.

Pixkanaka joaten zara zure jokoa ezagutzen, zure aukerez jabetzen, zure mugak ukitzen, noraino iritsi zaitezkeen ikusten... Jokalari batzuentzat presioa ona izango da, baina gehienontzat txarra.

A zer ereduak dauzkaten gure txikiek...

Hori da saltzen dutena. Hor nabaritzen da negozio handia dela futbola, futbolaren inguruan jende asko mugitzen dela. Horregatik ibili behar dugu kontuz publikoki esaten eta egiten dugunarekin.

Negozio baten parte zaretelako?

Badakit hau ez dela nik irudikatzen nuen futbola. Diruak kirol hau transformatu du eta kirola baino gehiago bihurtu da.

Alegia, futbola futbola dela, denak zaretela profesionalak...

Argi daukat zer jokotan nabilen. Hori kontratua sinatzean onartzen duzu. Onartzen ez dudanean futbola utziko dut eta beste futbol batean hasiko naiz.

Nahi duzuna esaten ahalko duzun futbol batean?

Erantzun ezberdinagoak eman behar ditugula diote, baina sentitzen duguna esaten dugunean ez dute onartzen. Horregatik diogu beti gauza bera. Polemika ez egoteko adierazi diguten bidetik goaz beti.

Zure atxikimendua behintzat ikusi izan dugu han eta hemen...

Bai, norberarena delako azken erabakia. Zerbaitekin konbentzituta ez zaudenean eta ondorioak jasotzen dituzunean sufritu egiten duzu, baina konbentzituta zaudenean lasai egoten zara.

Selekzioaren gaiarekin lasai egongo zara, orduan.

Jokalariok argi utzi dugu gure ikuspuntua, federazioak jakin dezan zer nahi dugun. Baina gu ez gara nor hori nola egin behar den esateko.

Egia izango da elitean dabilenak egoismo puntu bat daukala...

Badaukagu. Hoberena izanez ailegatzen zara lehen mailako talde batera eta behin zelaian zaudela, onena zarela erakutsi nahi duzu. Hori da egoismoa.

Hori eta galtzen duzuenero Bizkaiko produkzioa jaitziazte!

Azken bi urteotan... Kar, kar, kar. ■